

29an KALEAN PENTSIO PUBLIKOEN DEFENTSAN

Pentsio sistema publiko eta duinaren aldeko borroka ez du etenik. 3 urte dira pentsiodunen mugimenduak kalean borroka eredugarriari hasiera eman ziotenetik eta urte eta erdi Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartarekin batera lan, pentsio eta bizitza duinak aldarri hartuta Hego Euskal Herriko azken Greba Orokorra egin genuela.

Pentsioena ez delako egun erretiroa hartuta dauden borroka soilik. Egungo langileok bizitza duina izan dezagun lan baldintza duinen aldeko borroka egitearekin batera, erretiroa hartzean bizitza duinerako eskubidea bermatua izan dezagun borrokatu behar dugu.

Gaur gaurkoz indarrean jarraitzen dute 2011 eta 2013ko pentsio erreformak. Hauen eskutik erretiro adina luzatu, iraunkortasun indize famatua ezarri eta emakume eta gizonen arteko arrakala handiagotu egin ziren besteak beste.

2021ean gaude baina Madrileko Gobernutik ez dago norabide aldaketarik. Toledoko Itunaren gomen-dioek eta ondoren Kongresuan emandako bozkaketak erreforma berrien atarian jartzen gaituzte. Euro-patik datozen Next Generation diru funtsen baldintzapekotasunen artean ere pentsio sistema jomugan dagoela inork gutxik jartzen du zalantzan.

Madriletik ezartzen diren erreforma guztiek bezala, ate-joka dugun honek zer dakarren argi eta garbi dugu: murrizketa berriak. Erretiro adina luzatu nahi dute, enplegu sistema osagarrien eredua hedatu eta finean kapituloz kapitulo iragartzen ari diren neurrien bidez pentsio sistema publikoa deseraiki.

Hau guztia gainera lan erreformak bertan behera utzi gabe eta ondorioz prekarietatea- hedatuz doan eredu baten erdian. Soldata eta kotizazio baxuek etorkizuneko pentsioak baldintzatuta, gazteen enpleguratzeari erretzu ordez zailduta eta sistemaren bideragarritasuna auzitan jartzeko estrategia mediatiko-politiko baten erdian.

Egoera ez da xamurra eta langileok ditugun eskubide guztiekin gertatu bezala aterabide bakarra dugu: borroka egitea. Horregatik, behean sinatzen dugunok pentsiodunen mugimenduak maiatzaren 29rako deitu duen mobilizazioetan parte hartzeko deia egin nahi diogu Hego Euskal Herriko langile eta herritar guztiei. Hauek dira mobilizazioarekin bat egiteko gure aldarrikapenak:

- 2011 eta 2013ko pentsio erreformak eta 2010 eta 2012ko lan erreformak bertan behar uztea.
- 2021erako iragarri diren murrizketen eta Pentsio Sistema pribatizatzeke asmoen aurka agertzea.
- Gutxieneko pentsioa 1.080 euro eta gutxieneko soldata 1.200 euro.
- Soldatetan eta pentsioetan dagoen genero-arrakala amaitzea. Ezkontidearen pentsioaren %100 alarguntza-pentsiorako.

Erretiro aurreratua, Kongresuan eta Autonomia Erkidegoetako Parlamentuetan onartutako lege besteko proposamenen arabera kotizatutako 40 urterekin, zigortu gabe onartzea.

- Pertsonen bizi-baldintza duinak eta osasun-zerbitzu publikoak eta zerbitzu sozio- sanitarioak izateko duten eskubidea bermatzea, gure osasuna bermatzeko.

Honekin batera, bertan lan egin eta bertan erabakitzeko aldarria zabaldu nahi dugu beste behin. Burujabetzak behar ditugu, erabakiak hartu eta gauzatzeko eskumenak, baita pentsio sistemari dagokionez.